

THOMAS HUBER
MENDIA DA
ASKATASUNA
BIZITZA BAT MUGA-MUGAN

LERRO IKUSEZINA

2019ko uztailaren 16a, Choktoi (Karakorum, Pakistan)



Latok mendiak, harkaitzez, izotzez eta elurrez eratutako harresiak.

Berriro ere, horma honen aurrean eseri eta nire buruan hamaika aldiz igo dudan lerro ikusezin hau irudikatzen dut. Horma honek mendiko bizitzaz ikasi dudan guztia erabiltzea eskatuko dit. Hormaren oinarrian dagoen korridorea hilgarri eta aurreikusi ezina da. Sarrerara daraman elur-malda izoztua, itxuraz sinplea, glaziar-pitzadura handi baten azpian aurkitzen da. Arau bakarra dago: ez dago araurik. Hormara iristeko biderik errazena hartzen baduzu, edozein momentu izan liteke zure azkena, edozein momentutan izotz-jausi bat eror daitekeelako.

Eremu hori, beraz, neke handiz harrizko zutabe bat baliatuz saihestu beharrekoa da. Berrehun metroko eskalada gogorra da; ezkerrera rappela egin eta elur malda baten albotik, elur-jausi eremuaren gainetik igaro behar zara. Iparraldeko hormara sarrera ematen duen hormako sarbidean, izoztutako ur-jauzi bertikal bat hormaren “bihotzera” igotzen ikus daiteke. Erlaitz horretan instalatu dugu hormako lehen kanpamentua. Handik ezkerrera jarraituko dugu erdiko izotz zelai lauagotik. Akaso hormaren zatirik errazena izango da, baina baita arriskutsuena

ere. Menditik jausten den guztia hemen pilatzen baita: harriak, elur arina eta elur-jausiak. Zati hau momentu konkretu batean bakarrik igo daiteke: hotz handiagoa egiten duenean, gauez, alegia. Izotz malda honen amaieran 800 metroko altuera duen granitoko horma bertikala aurkitzen da. Eskala daitekeen igoera naturalena bertikala da oso, eta eskuinera jo behar da arrapala-sistema batetik, gailurrera daraman gandorrera iristeko. Kanpatzeko azken aukera 6.800 metrora dago. Handik aurrera ertz zorrotz baten gainetik edo izoztutako kanal batetik jarraitu behar da, 7.000 metro pasatzeko gailurrera. Hau da amaiera, hormaren klimaxa. Zati honek dena eskatuko digu.

Zelako igoera. Horren ederra eta aldi berean helezina! Latok I Ipar Aurpegia deitzen zaio harkaitzez, izotzez eta elurrez osatutako horma honi eta Choktoitik hasita, 2.000 metroko desnibela dago. Dagoeneko lan handia eskaini diot horma honi. Laugarren aldiz etorri naiz, momentu perfektua existitu daitekeela sinesten dudalako: taldeak eta mendiak bat egiten dutenean ezinezkoa dirudien lerro hori posible dela sinesten baitut. Beste batzuek diote arraroa eta eroa naizelako nagoela hemen, edo errealitatetik kanpo bizi naizelako. Surrealista naizelako. Horma haien ikuspuntutik begiratzen dudanean, ulertzen dut zer esan nahi duten. Abenturan murgiltzen naizenean, dena ematen dut, nire bizitza, nire pertsona kutunenak, nire lagunak, dena. Horma hotz horrengatik.

Badakit, gainera, munduak biraka jarraitzen duela nik igoera hau egin ala ez, ez dela ezer aldatuko. Ezer ere ez da aldatuko gailurreraino iristen banaiz. Eta, hala ere, dena aldatuko da, ez munduarentzat, baizik eta niretzat eta nire ingurukoentzat, niretzat garrantzitsua dena egin dudalako. Eta benetan sinesten dudanaren istorio osoa kontatu nahi badut, zergatik den nire bizitza den modukoa, eta Choktoin zer egiten dudana azaltzeko, hasieratik kontatu behar dut dena.

1

NIRE MUNDU TXIKIA

Haurtzaroa

1966an munduari begi bitxiekin begiratu nion eta gehiegizko pisua nuenik jakin gabe. Gurasoek esan zidatenez, bazeuden ni baino ume politagoak. Baina hori ez zen garrantzitsua, ondo babestuta sentitzen nintzen eta. Nire aita eta aitona bezala, Thomas izena jarri zidaten familiako tradizio zaharrari jarraituz. Hamar hilabeterekin eman nituen nire lehen pausoak, eta laster hasi nintzen nire lehen hitzak esaten. Bazirudien ezin niola ezeri denbora askoz itxaron.

Behin, haurra nintzela, egonezina izan nuen gau batez, eta beraz, ama kezkatuta joan zen nire ohera. Momentu hartan patioan ezohiko argi distiratsu bat nabaritu zuen. Gure ukuiluak sutan zeuden! Pallingeko suhiltzaileak etorri ziren eta okerreza saihestea lortu zuten. Auzokideen laguntzarekin, behintzat, animalia guztiak sutetik salbatu genituen, baina ukuiluak errauts bilakatu ziren. Hala ere, suhiltzaileek etxea salbatu ahal izan zuten. Urtebete geroago dena berreraiki zen eta nire gurasoak zezenak hazten hasi ziren. Esne-behiek lan handia eskatzen zuten, eta nire aitak nahiago zuen denbora, baserrian baino, mendian pasa.

Denbora horretan, beste Huber batek bere etorrera iragarri zuen. 1968ko Urte-zahar gaua baino pixka bat lehenago, anaia bat izan nuen, Alexander. Mutil ederra orduko argazkiei erreparatuz gero. Baina gertaera garrantzitsu horiek guztiak erabat desagertu dira nire oroimenetik. Nire oroimenean aurki dezakedan lehen pertzepzio kontzientea ukuilu berriak dira, ondoren, bertako hormigoizko zorua laua zela eta *karting* egiteko balio izan zuena. Denbora horretan, gure aitak bigarren diru sarrera bat lortu zuen eta banku batean praktikak egin zituen. Amak berriz ukuiluko lanak egiten zituen, eta guk lorategian eta baserrian jolasten genuen. Garai hartan, ordea, ez ginen konturatzen zein garrantzitsuak ziren mendiak gure aitarentzat. Ia astebururo kanpoan egoten zen, abentura bertikalak bizitzen.

Lau bat urte nituela, gure aita eskalada istripu bat izan zuen. 30 metroko eroriko egin zuen Dachsteingo Bischofsmützeko ipar-aurpegian. Erortzean, sokak zauri sakona egin zion hankan eta ospitalean amaitu zuen. Gure aita ospitaleko ohean bisitatu genuenean, gertatutakoa azaldu zigun. Momentu hartan zin egin nuen ez nintzela inoiz mendira joango, eta nire aita joaterik ere ez nuen nahi. Niretzat mendiak arriskutsuak eta hilgarriak ziren. Mendiak aita kendu nahi zidaten!

Hala ere, gertakari hark ez zion bere pasioa kendu: eskalada. Baina jada ez zigun mendiko abenturarik kontatzen. Dolomitetan mendi-oporraldi batek berretsi zidan mendiarekiko nuen gaitzespena. Zein alferrikakoa zen mendian gora egiten saiatzea! Eta nik irmoki eutsi nion nire mendiakiko gaitzespenari.

Ezinikusi hura alde batera utzita, nire haurtzaroaren hasiera liburu ilustratu koloretsu baten gisakoa izan zen. Gogoan ditut herriko kaleetan zehar egiten genituen bihurrikeria haiek, haurtzaroko lorategi hartan moja beldurgarriaren zigorrak, Pallingeko mendian eskiatzen saiatzerakoan hartutako kolpeak eta, batez ere, gure amonen etxeetan igarotako egunak. Gure aitonak existitu baziren ere, gure aiton-amonen etxeei beti esaten zitzaien “Pallingeko amonarena” edo “Tyrlbrunneko amonarena”. Eta amonen etxeak haien artean oso bestelakoak ziren izaeraz, bi herriak bezala: Tyrlbrunn landa eremu erromantiko basatia zen: bost baserri eta eliza bat. Palling berriz herri moderno eta handia zen. Eliza, hilerria, es-



Anaia Alexanderrekin batera, bikote banaezina.

kola, monasterioa, ostatua, harategia, okina, janari-denda, farmazia, medikua eta dentista ere bagenuen. Bizitzeko behar den guztia. Ekialdean, nekazarien soroak alpetar mendilerro aldapatsuetan barna hedatzen ziren, mendebaldean herria Palling mendilerroak mugatzen du, iparraldetik hegoaldera ehun metroko altuera eta hamar kilometroko luzera duen pareta batek, hain zuzen ere, azken izotz aroan eratu zen pareta batek.

Pallingeko amona gure baserri ondoko etxe txiki batean bizi zen eta beti izaten zuen prest jateko zerbait. Beste garai bateko istorio asko kontatzen zituen, eta aitonak gerrari buruz hitz egiten zuen. Lehen lerroan izan zen mediku gisa Lehen eta Bigarren Mundu Gerretan. Adiskidetasunaz hitz egiten zigun, baina, batez ere, gerraren zentzugabekeriak.

Tyrlbrunnen, berriz, oraina baino ez genuen bizitzen. Baserri karratu, zahar, handi eta eder bat zen, kanpoan haritz zahar erraldoi bat zuena. Ukuiluen atzean baratze oparo bat zegoen eta bertan fruitu eta baia gozoak beti jasotzeko prest zeuden. Oraindik ere nire pentsamenduetan etxe hura usain dezaket: ukuiluaren eta suan txinpartaka ari den eltzearen usainen nahasketa berezia. Tyrlbrunnen gaua pasatzeko baimena ematen zidatenean, baserriko egunerokoan buru-belarri murgiltzen nintzen. Egunsentian oilarrak esnatzen gintuen, sukaldean egurra pitzatzen entzuten zen, eta jetzi berri zegoen esnearen burdinazko ontzia sukalde handi hartan egoten zen zutik. Amonak kakao epel bat prestatzen zidan, eta esnari azal fin bat sortzen zitzaion gainazalean; ukuiluko esne freskoaren seinale. Amonak askotan errepikatu arren geruza hark osasuntsu egingo ninduela, ez ninduen konbentzitzen haren gozotasunak. Beraz, beti hartzen nuen nire kakaoa esne-gainik gabe eta horren orde z marmeladazko tostada bat gehitzen nion gosariari. Aitonak kafe egin berria hartzen zuen esne askorekin eta hiru koi-larakada azukrerekin. Pipa ere erre ohi zuen. Behin aitonaren edabea probatu ahal izan nuen, eta, ziurrenik horregatik, egun ere, nire kafeari ez diot inoiz esne askorik botatzen, ezta azukrerik ere. Gero ukuilura joaten ginen: behiei jaten eman, jetzi eta larrera bidali. Ondoren oilategira joaten ginen arrautza bila.

Amona sukaldean egoten zen gehienbat, lanpetuta. Ogia eta marmelada egiten zituen, eta, behinik behin bisitan joaten nintzenean, nire plater gogokoena prestatzen zuen: etxeko txahal zopa tipulin eta opil goxo batekin. Pipermin mordoa izaten zuen, horrenbeste, non begiak negar batean jartzen zitzaizkidan. Burdinazko lapiko handi bat erabiltzen zuen, egurrezko estalkia zuena eta lihoz inguratzen zituen opiltxoak. Amonak bakarrik zekien noiz zeuden prest lurr-netan egindako opil haiek. Gaineko alde leuna eta zuria zuten eta behealde, kurruskaria eta gozoa. Baina, noski, baten batek estalkia kuriositatez zabalduko balu, dena pikutara joango litzateke. Ogitxoek amonak bakarrik zuen ukitu berezia behar izaten zuten. Etxean egindako sagar konpota ere izaten genuen.

Bai, amona onena zen, eta Tyrlbrunnen igarotako denbora gure garairik kutunea izan zen.

82 urte zituen Pallingeko aitona hil eta gutxira, maniobra militar alemaniar-amerikar bat izan zen gure herrian eta tanke batean paseo bat egiteko baimena eman zidaten. Orduan aitak kontatu zidan aitona amerikar tanke batera igo zela Palling naziengandik askatu zutenean.

1944/45ko neguan gerraren amaiera nabari zen. Aliatuen hegazkin bonbaketariak Pallingen gainetik Salzburgerantz hegan egiten zuten gero eta maizago. Sirenak entzutean, herriko bizilagunak etxeko sotoetan ezkutatzen ziren, alarma berriro entzun arte. Sarritan gauez ekialdetik zerua argiztatzen zen airetik egindako bonbardaketen ondorioz, eta Thomas txikia, nire aita, gerrak heriotza eta ezbeharra besterik ez zuela ekartzen konturatu zen. Thomas txikia pozik zegoen, bere aita ez zelako berriz Frantziako frontera itzuli behar izan, zauritu egin zutelako, eta gerra azkenean amaitu egin zelako.

Bat bestearen atzetik hartzen zituzten herriak amerikarrek, eta momentu hartan, Pallingera hurbiltzen ari zirenean, Riedl baserriko nekazari batek, aitona, Pallinger mendira oheko maindire zuri batekin joateko ausardia izan zuen, hurbiltzen zen tanke zutabe amerikarra agurtzeko eta Palling errenditu egin zela adierazteko. Tankeak Pallinger menditik etorri zirenean, Thomas txikia herriko plazan zegoen bere amarekin eta herriko biztanleekin batera, itxaroten. Aita lehen tankean eserita etorri zen. Amerikar baten arma zuen haren bizkarrean. Isiltasun izugarria zegoen herrian eta denak Riedlgo baserritarrari begira zeuden. Thomas txikiak ez zuen une hura inoiz ahaztuko. Batetik, oso harro zegoen aitaz, baina, aldi berean, beste baten menpe egoteak beldur ikaragarria sorrarazi zion.

Aitak istorio hau kontatzen zuen bitartean, nabaritu nuen zein harro zegoen bere aitaz eta zenbat miresten zuen bere ausardia.

Nik ere maite nuen aita, ezin liteke hobeagorik. Baina aurre egin ezin nion beldur bat nuen: egunen batean aita mendi arriskutsu haietako batetik itzuliko ez zen beldur nintzen. Eta, hala ere, ulertu egin nahi nuen zergatik joaten zen mendira. Jakin nahi nuen zergatik jarriko lukeen inork, bere borondatez, bere burua arrisku hilkor baten aurrean. Beraz, bere mendizale-bizitzako istorio batzuk kontatzen hasi zitzaidan. Lehenik eta behin, kalterik egiten ez zuten eskalada esperientzia politak. Baina gogoz entzuten nuenez, bere abentura gero eta zoroagoak atera zituen: bibak gau hotzak neguko igoeretan, bere mendizale kuadrillarekin inguruko mendietan egindako eskalada aldapatsuak, Wilder Kaiser edo Berchtesgadengo Alpeetatik egindakoak, esaterako. Baita igo-tako pareta handietako istorioak ere, hala nola, Droiteseko ipar aurpegian, Walkerpeiferreko, Chamonixeko, edo Matterhornko ipar aurpegian bizitakoak.

Abentura bakoitza istorio bat zen, eta halako ilusioz eta grinaz kontatu zizkidan, non konturatu nintzen alpinisten bizitza heroiko hura “mendiak igotzea” baino askoz gehiago zela.

Lehen aldiz bere mendietara eraman ninduen, nahi nuelako. Bat-batean mundu berri bat ezagutu nuen, lehen bizi nuenarekin zerikusirik ez zuena. Aitak har-kaitz txiki batzuk eskalatzen utzi zidan eta eskuak eta hankak ongi baliatzeko teknikak erakutsi zizkidan, baita bere mendiko lagunekin igotako hormak ere. Mendian bakarrik aurki daitekeen edertasun eta askatasun baten berri eman zidan, eta orduan ulertu nuen mendia zertan den.

Nola deskubritu zuen nire aitak mendia

Gaztea zela, eskola egun eguzkitsuetan, maiz ibiltzen zen herritik kilometro gutxira zegoen muino txiki bateko bidexkatik. Belardi batean eseri eta mendiei begira geratzen zen. Miresmenez ikertzen zuen mendien mundua bere begi erneekin, eta



Eskerrak eman nahi dizkiegu gurasoei duela 40 urte baino gehiago mendien munduan sartu gintuztelako.

laster ezagutu zituen mendilerro, gailur eta aurpegi malkartsu guztiak, bakar baten izena ere jakin gabe. Gero eta gertuago sentitzen zuen mendi-mundu hura, eta gero eta gehiago pizten zion irrika paisaia hark. Bere buruan dagoeneko hainbat aldiz igo zituen haren begien aurrean zituen mendi guztiak. Azkenean osaba bere zaletasunaz ohartu eta mendi haiei izenak eman zizkien: Dachstein, Watzmann, Untersberg eta Wilder Kaiser. Osabarekin atera zen lehen aldiz, kaleko zapata eta igandeetako arropa jantzita. Reiteralpetik Wartsteingo aterperaino igo zen, eta hurrengo egunean Häuselhorn gailurrera iritsi zen. Mendizale gehienak jende dezentente ibiltzen zen bidexkatik joaten ziren, baina Thomas txikiak bidexkatik harago zegoen guztia deskubritu nahi zuen. Sarrio jostalari baten antzera, harkaitz guztietara igotzen zen eta harriz harri jauzika ibili zen osabaren aholkuei entzungor eginez. Ez zegoen haren zirrara gelditzerik. Bere bizitza laburreko egunik onena izan zen, eta handik aurrera, bere bizitza oso bestelakoa izan zen.

Pallinger mendiak berezitasun bat du: konglomeratu arroka duen 20 metroko altuerako harrobi bat. Eta Thomasek horma hartan bere bideak egin zituen. Harkaitzaren maila txikiak, erlaitzak eta arrapalak lotuz, igoera gogorrak aurkitu zituen, eta guztiak kaleko zapatekin eta ausardia handiz igo zituen. Berarentzat, mendiko abentura berrietarako prestaketarik onena izan zen. Agian, benetan ulertzen zuen pertsona bakarrak, osabak, “Wilda Keiserreko Aitasantua” deitzen zioten Franz Nieberlen liburua eman zion: *Arroka-eskalada*. Asteburuetan, gero eta zailagoa zen hamahiru urteko Thomas txikia igandeko mezan aurkitzea. Horren partez, ezkutuan, bizikletaz joaten zen Chiemgau, Hochfelln, Rauschberg, Hochgern eta Hörndlwand mendietara.

Hörndlwand. Izen hura entzutea zirragarria zen berarentzat. Erraz igo zitekeen gailurrera hegoaldeetik, baina iparraldeetik joanda 150 metroko altuera duen izugarritzko pareta dago. Horma haren azpian zegoela ikusi zituen lehen aldiz eskalatzaileak. Urrats eta maniobra bakoitzari arretaz begiratu zion eta paretan gora eskala zitezkeen bide gehiago bilatu zituen.

Hörndleko ipar aurpegiaren ezkerreko ertzean egingarria iruditu zitzaion bide bat aurkitu zuen. Tximinia sakon batek gailur zorrotz batera eramango zuen eta gero hark tontorreraino. Geroztik, mutikoak ezin izan zuen igoera bertikal hori, Redwitz tximinia, burutik kendu. Bizikletaz etxera itzuli zenean, gurasoak ez zeuden batera pozik, beti bezala. Baina gaztetxo hura ez zen aise kikiltzen zen horietakoa. Plan bat zuen buruan eta harrobian jarraitu zuen eskalada-trebetasunak lantzen. Gainera, konturatu zen gomazko zoladun oinetako baxuek marruskadura hobia eskaintzen ziotela.

Hamahiru urterekin nahikoa indartsu sentitzen zen jada. Beraz, bizikletaz mendira joan eta berriro ere Hörndlwandeko oinarrira igo zen. Bere buruarekiko konfiantza handia zuenez, tximinian gora egin zuen aurrera jarraitzea oztopatu

zion arroka batekin topo egin zuen arte. Orduan atzera egitea ez zen batera heroikoa izango, beraz, aukera bakarra geratzen zen: gora jarraitzea. Horixe azaltzen zen behintzat irakurri zuen liburuan: mendizaletasuna arriskuei ausardiaz aurre egitea eta haiek trebezia menderatzea da. Eta, beraz, benetako mendizalea izateko erabakia hartu zuen. Hortaz, bere indar guztiekin bultza eta tira egin zuen bloke makurtu hura gainditzeko, jarraitzea atzera egitea baina errazagoa izango zelakoan. Horren ordez, egoera are zailago bihurtu zen, eta orduan konturatu zen planteamendu heroikoa akats larria izan zitekeela. Hankak dardarka hasi zitzaizkion eta hala deskubritu zuen “josteko makina” efektu famatua, zeinak laster mutikoa goitik behera astindu zuen. Ez zuen ez gora, ez behera biderik ikusten. Ihesbiderik ez zegoela konturatu zen. Gauza bakarra zen ziurra: nahi-taez behera itzuliko zen, eroriz ala eskalatuz.

Behera jaistea eta bizirautea lortu bazuen ere, ezin zuen ulertu nola lortu zuen. Bizikletaz itzuli zen Pallingera, apal eta lotsatuta, eta esperientziak arrasto iraunkorra utzi zion. Hala ere, mendizaletasuna uzteak baserrian jarraitzea zekarren: igandeetan arropa ederrak janzea eta elizara kapelarekin joatea. Hura ez zen bere mundua. Musikaren bidez gurasoek agindutako errealtatetik ihes egiteko modu berria aurkitu zuen eta biolina jotzen hasi zen. Baina, hala ere, ezin izan zituen mendiak ahaztu.

Hörndlwandeko esperientzia honen ostean, pareta bertikalak alde batera utzi eta ertz errazenak igotzen hasi zen, askotan Berchtesgadengo Alpeetan. Watzmann mendiko hegoaldeko gailurrean bere igandeetako kapela bota zuen. Harentzat, bere familiaren kateak apurtzea izan zen ekintza hura, bere burua aurkitzeko matxinada bat. Eta zer hobe hori lortzeko mendiak eta musika baino! Tontorrean bakarrik eta isilik zegoenetan, Beethovenen biolin kontzertua entzuten zuen buruan, eta etxean biolina jotzen zuenean, mendiaren irrika nabaritzen zuen. Mundu propio hura aurkitu zuenean, baserritarren seme gisa zituen familiako eginkizunetan ere bere barne oreka aurkitzea lortu zuen.

Hörndlwandeko esperientzia ahaztua zuen jada, eta 16 urterekin Trostberg Klub Alpinoko kide egin zen. Bere lehen benetako bidea eskalatu zuen soka-talde batean Teisendorfeko Walter Kellermanekin: Kleiner Watzmann mendibaldeko aurpegi zuzena, V- zailtasun mailakoa. Beldurrik gabe igo zen, bere mugimenduek bizitza osoa eskalatzen pasa izandako norbaiten leuntasuna zuten. Horma hura gainditu zuen eta orduan jakin zuen zer egin zezakeen, eta Thomas gazteak bere buruarekiko zuen konfiantza bikoiztu egin zen.

Asteburu eguzkitsu batean, Franz Dürschmied eskalada-lagun berriarekin, motxila erabat beteta, haien Zündapp 200 motorrean Berchtesgadenera joan ziren, zehazki, Endstalgo Scharitzkehlalmera. Edozein eskalatzailearen paradisua da hura: kolore berde bizia duen alpetar belardi oparoa da. Haren erdian, nekazarien borda